

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2020. urteko hainbat arlotako diru-laguntzen deialdia

Udal osoko bilkurak 2020ko maiatzaren 14an egindako saioan honako hau erabaki zuen:

– Kirol, kultura eta gizarte arloetarako, euskara sustatu eta ikasteko, EITak egiteko, Zuiako Udalerrian haurrak etxean hartzeko programarako, Zuiako ikasleen gurasoen elkarreentzako, ikasi edo prestatzen laguntzeko eta horretarako garraiorako eta etxebizitzak alokatzeko 2020ko ekitaldiko diru-laguntzen deialdia eta aipatu diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak Alkatezkan proposatutako aldaketekin onartzea.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2020ko gastuen aurrekontuko 341.481.000, 334.481.000, 335.480.000, 1522.481.000, 231.780.000, 326.481.000, 326.481.060, 326.481.070, 326.481.020 eta 1521.481.080 partiden kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2020ko ekainaren 8an

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

KIROLAREN ARLOKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontuaren mugen barruan, Zuiako udalerrian kirol jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea eta, orobat, herritarrek udal eskumeneko osagarri edo ordezkotako diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko prestazioak eskuratzeko aukera berak edukitzea bermatzen duten helburuak zehaztea.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren eta gizartearen arloetako elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik, legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez bertan erroldatuta badaude.

Ezin dira aurkeztu diru-laguntza deialdi honetara Zuiako udalarekin diru-laguntza zuzenean bideratzeko hitzarmena sinatuta duten elkarteak eta pertsonak, ez eta Zuiako ikastetxe publikoetako guraso elkarteak ere, ikastetxe horietako kirol jarduerak udalaren hezkuntza eskumenen esparruan sartzen dira eta.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen programak

Diru-laguntza hauek Zuiako udalerrian kirolaren arloan antolatzen diren jardueretarako emango dira; lehentasuna edukiko dute programa hauek:

- Zuiako udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen dutenek.
- Herritarrek parte hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerria sustatzen dutenek.
- Kirola, oro har, eta batez ere Euskal Herriko kirolak ezagutarazten eta sustatzen dituztenek.
- Kirolean aritzea errazten duten jarduerak antolatzen dituztenek.
- Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten jarduerak sustatzen dituztenek edota pertsona behartsuenen edo gizartean baztertua geratzeko arriskuan daudenen parte hartzea eta gizarteratzea bermatzen dituztenek.
- Emakume eta neskatilen parte-hartze zehatza sustatuz.
- Herriko tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.

4. Aurrekontuko kreditua

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 341.481.000 partidaren kargura egingo dira. Partidaren zenbatekoa 26.000 euro da.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzak banatzeko sistemak bi atal dauzka: zenbateko bat emango da fitxen araberako gastu finkoagatik eta beste kopurua bat puntuazioaren arabera. Lehenbizi fitxen gastu finkoa kalkulatu da, kopuru hori aurrekontuko partidatik kenduko da eta geratzen dena kirol elkarte eta taldeen artean banatuko da bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera.

Diru-laguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gain finantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien diru-laguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino gehiago. Hainbat diru-laguntza jaso eta ondorioz gain finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Zuiako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, hain zuzen ere finantzatutako guztirako zenbatekoaren eta Udalak emandakoaren arteko proportziozko zenbatekoa.

Diru-laguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Zuiako Udalak aurrekontu orokorrean horretarako partidaren ezarritako kopurua baino gehiago.

Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, haren zati bat aldeztatik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

Udalak gehienez ere programa osoaren kostuaren aurrekontuaren ehuneko 50 ordaindu ahal izango du.

6. Eskaerak aurkeztea

1. 2019/2020 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera za-pigarraren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontaktzen hasita.

2. Eskabideen eta agirien aurkezpena Udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

3. Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

7. Dokumentazioa

Eskaera ofiziala eta inprimakia (Udalak emango ditu). Inprimaki bat bete behar da proiektu edo programako eta denboraldiko, eta diru-sarrera eta gastuen aurreikuspen orria sinatuta.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eraturik eta erregistraturik dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada, eta toki erakunde txikiek ere ez.

Gizarte Segurantzako eta Ogasunaren Diruzaintza Nagusiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria, eta halakorik ezean zerga betebeharrekin egunean dagoelako zinpeko aitortpena edo Udalarari horiek eskatzeko baimena ematea, I. eta II. eranskinen arabera. Beharrezkotzat joz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Komenigarria iritziz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Eskaeran eta inprimakian adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

8.2.1. Kirol programetarako diru-laguntzak.

Kopuru finkoa: federazioen lizentziak.

Arbitraje gastuak.

Kirol materiala.

Entrenatzaileen gastuak.

Federazioen gastuak.

Autofinantzaketa.

Aurrekontua, guztira.

Nahitaezko aseguruak.

Anbulantziak/medikuak/botikina.

Materialaren alokairua.

Euskararen sustapena.

Entrenatzaileen tituluak.

Emakume entrenatzaileak egotea.

Emakume eta nesken berdintasuna sustatzea.

Kopuru finkoa: federazioen lizentziak:

– Kirol federazioaren fitxa (901 euro baino gehiago): 30 euro fitxako.

– Kirol federazioaren fitxa (900 euro baino gutxiago): 20 euro fitxako.

Lizentziaren diru-laguntzaren zenbatekori 10 euro gehituko zaizkio kirol federatuko 14 urtetik gorako emakume bati dagokionean.

– Eskola umeen inskripzioa: 10 euro kirolariko.

Arbitraje gastuak:

| | |
|-------------|----------|
| 0-300 | 5 puntu |
| 301-600 | 10 puntu |
| 601-900 | 15 puntu |
| 901-1.200 | 20 puntu |
| 1.201-1.500 | 25 puntu |
| 1.501-1.800 | 30 puntu |
| 1.801-2.100 | 35 puntu |
| 2.101- | 40 puntu |

Kirol materiala:

| | |
|-------------|----------|
| 0-500 | 10 puntu |
| 501-1.500 | 20 puntu |
| 1.501-3.000 | 30 puntu |
| 3.001-4.000 | 35 puntu |
| 4.001- | 40 puntu |

Entrenatzaileen gastuak (gehienez 200 euro hilean entrenatzaileko):

| | |
|--------------|----------|
| 0-1.000 | 10 puntu |
| 1.001-2.000 | 15 puntu |
| 2.001-3.000 | 20 puntu |
| 3.001-4.000 | 25 puntu |
| 4.001-5.000 | 30 puntu |
| 5.001-6.000 | 35 puntu |
| 6.001-7.000 | 40 puntu |
| 7.001-8.000 | 45 puntu |
| 8.001-9.000 | 50 puntu |
| 9.001-10.000 | 55 puntu |
| 10.001- | 60 puntu |

Federazioen gastuak:

| | |
|-------------|----------|
| 0-300 | 3 puntu |
| 301-500 | 5 puntu |
| 501-1.500 | 10 puntu |
| 1.501-3.000 | 20 puntu |
| 3.001-5.000 | 35 puntu |
| 5.001- | 50 puntu |

Autofinantzaketa (udal diru-laguntza zenbatu gabe):

| | |
|---------------|----------|
| 0-500 | 5 puntu |
| 501-1.500 | 10 puntu |
| 1.501-3.000 | 15 puntu |
| 3.001-5.000 | 20 puntu |
| 5.001-8.000 | 30 puntu |
| 8.001-10.000 | 40 puntu |
| 10.001-15.000 | 50 puntu |
| 15.001- | 60 puntu |

Diru-laguntza jaso dezakeen aurrekontua, guztira:

| | |
|---------------|----------|
| 0-500 | 5 puntu |
| 501-1.500 | 10 puntu |
| 1.501-3.000 | 15 puntu |
| 3.001-5.000 | 20 puntu |
| 5.001-8.000 | 30 puntu |
| 8.001-10.000 | 40 puntu |
| 10.001-15.000 | 50 puntu |
| 15.001- | 60 puntu |

Nahitaezko aseguruak:

| | |
|-------------|----------|
| 0-500 | 5 puntu |
| 501-1.500 | 10 puntu |
| 1.501-3.000 | 20 puntu |
| 3.001-5.000 | 30 puntu |
| 5.001- | 40 puntu |

Anbulantziak/medikuak/botikina:

| | |
|-------------|----------|
| 0-100 | 2 puntu |
| 101-300 | 5 puntu |
| 301-500 | 10 puntu |
| 501-1.000 | 20 puntu |
| 1.001-1.500 | 30 puntu |
| 1.501-2.000 | 40 puntu |
| 2.001-2.500 | 50 puntu |
| 2.501- | 55 puntu |

Materialaren alokairua:

| | |
|--------------|----------|
| 0-500 | 5 puntu |
| 501-1.500 | 10 puntu |
| 1.501-3.000 | 15 puntu |
| 3.001-5.000 | 20 puntu |
| 5.001-8.000 | 30 puntu |
| 8.001-10.000 | 40 puntu |

Euskararen sustapena:

| | |
|---------------------------------------------------|----------|
| Ehuneko 100: entrenamenduak eta partidak euskaraz | 20 puntu |
| Ehuneko 75: entrenamenduak eta partidak euskaraz | 15 puntu |
| Ehuneko 50: entrenamenduak eta partidak euskaraz | 10 puntu |

Entrenatzaileen tituluak:

| | |
|-------------------------------------------|-------------|
| Titulurik ez | punturik ez |
| Zero gradua edo eskola kiroleko monitorea | puntu bat |
| 1. gradua | 2 puntu |
| 2. gradua | 3 puntu |
| Goi mailako entrenatzailea | 4 puntu |

Emakume entrenatzaileak egotea:

| | |
|-------------------------|---------|
| Emakumerik ez | 0 puntu |
| Emakume 1 | 1 puntu |
| 2 emakume | 2 puntu |
| 5 emakume baino gehiago | 3 puntu |

Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea:

| | |
|--------------------------------------------------------------------|----------|
| 0 ekintza zehatz berdintasuna sustatzeko | 0 puntu |
| Ekintza zehatz 1en garapena berdintasuna sustatzeko | 1 puntu |
| Ekintza zehatz 2ren garapena berdintasuna sustatzeko | 2 puntu |
| Ekintza zehatz 3ren garapena berdintasuna sustatzeko | 3 puntu |
| Udalak deitutako bileretan parte-hartzea edo horietara bertaratzea | 10 puntu |

Ondoren azalduko diren kontzeptuek eragiten dituzten gastuak ezin dira zenbatu diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko puntuazioaren baremoaren eta gastuen justifikazioaren arabera:

Otorduak, oro har.

Joan-etorriak norbere ibilgailuan.

Jantziak, txandalak, kirol jertseak, poloak, etab.

Ostatua, bidaia turistikoa edo antzekoa denean. Faktura bidez frogatu ezin diren gastuak ere ezin dira zenbatu (ikusi gastuak frogatzeko modua).

9. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarte bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta puntu bakoitzaren balioa zenbatetsiko da. Puntu bakoitzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituenean ezarriko da.

Puntu guztien baturari dagokion zenbatekoaren ehuneko 75 aurreratu ahal izango da, puntuaren balio zenbatetsia aplikatuta.

10. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

10.1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko eskumena kirolaren arloko buru den zinegotziak dauka.

Ebazteko eskumena, aldiz, alkateak dauka.

10.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoreari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari.

– Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorri ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoreak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haien hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diru-laguntza eskatzen den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa, lortutako puntuak eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitaz jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da jakinarazten denetik bi hilabete pasatu baino lehen administrazioarekiko auzietarako epaitegian.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabete epean errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. Diru-laguntza ordaintzea

11.1. Urteko programetan, alde zurretik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

11.2. Ezohiko programetan eta jarduera zehatzetan, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

11.3. Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, haren zati bat alde zurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

12. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean epealdi honen barruan:

2019/2020 denboraldiko kirol federatua eta eskola-kirola, 2020ko urriaren 30a baino lehen eta Zuiako Txirrindulari Kluba 2020ko abenduaren 18a baino lehen, Ametzaga Zuia Ziklokros proba aipatu Klubaren programatik kanpo antolatzen bada izan ezik; kasu horretan, azken eguna gainerako taldeei dagokiena izango da, hau da, 2020ko urriaren 30a.

13. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

– Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

Egindako jarduerak. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekintzen sustapena.

Aldiak: egunak eta orduak.

Partehartzaileak. Sexuaren arabera bereziak.

Jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, sinatuta.

Helburuak eta balorazioa.

Jarduerak sortutako sarreraren eta eragindako gastuen balantzea.

Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

– Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta hartu agiriak, bankuaren ordain-ketaren frogagiriarekin (fotokopia konpultsatua), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak eta gainerakoak:

Emalea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ. Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).

Gastuaren xedea.

Data.

BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

– Zinpeko aitorpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

– Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

14. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzaren agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira. Gainera, hauek hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, eta genero estereotiporik gabeko baliabideak, hala nola argazkiak.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.

Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.

Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du Udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; Udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

15. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

16. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo diru-laguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago. Hala gertatzen bada, soberakina Zuiako Udalak emandako diru-laguntzatik kenduko da.

17. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

I. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....
Harremanetarako telefonoa:..... Faxe:.....E-posta:.....
Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....

BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak kirolaren alorrean 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia ebatzi baino lehen, Arabako Foru Ogasunetik beharrezkoa den informazioa ofizioz eskura dezan, ordezkatzan duen Erakundeak edo Elkarteak aipatu Foru Ogasunarekin zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "Kirolerako Diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

II. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....
Harremanetarako telefonoa:..... Faxa:.....E-posta:.....
Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....

BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak kirolaren alorrean 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia ebatzi baino lehen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzatik beharrezkoa den informazioa ofizioz eskura dezan, ordezkatzeko duen Erakundeak edo Elkarteak zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "Kirolerako Diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

KULTURAREN ARLOAN, EUSKARAREN SUSTAPENAREN ARLOAN ETA GIZARTE SUSTAPENAREN ARLOAN EMANGO DIREN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontuaren mugen barruan, Zuiako udalerrian kultur jarduerak, euskara sustatzeko jarduerak eta gizarte sustapeneko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea eta, orobat, herritarrek udal eskumenekoen osagarri edo ordezkotza diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko prestazioak eskuratzeko aukera berak edukitzea bermatzen duten helburuak zehaztea.

2. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren eta gizartearen arloetako elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik eta legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen programak

Diru-laguntza hauek Zuiako udalerrian kirolaren, aisialdiaren, euskararen eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira batik bat; lehentasuna edukiko dute programa hauek:

- Zuiako udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.
- Euskararen erabilera sustatzen eta bultzatzen dutenek.
- Herritarrek parte hartzea bultzatzen dutenek.
- Udalerria sustatzen dutenek.
- Kultura eta euskara zabaltzeko eta sustatzeko jarduerak dituztenek.
- Kultura lantzea errazten duten jarduerak antolatzen dituztenek.
- Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten jarduerak edota ekintzak sustatzen dituztenek edota pertsona behartsuenen edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenen parte hartzea eta gizarteratzea bermatzen dituztenek.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten programak eta/edo ekintzak.
- Gizarteratze arriskuan dauden edo kolektibo behartsuen parte-hartzea bermatzen edo/eta sustatzen dituzten programak.
- Herriko tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.
- Gazteek aisialdian izan ditzaketen arriskuak prebenitzera zuzendutako jarduerak, jolas eta aisialdi jarduerak, bizi kalitatea hobetzeko jarduerak, ezinduei zuzendutako jarduerak, gizartean gazteen papera sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak.

4. Aurrekontuko kreditua

Gastu hauek Zuiako Udalaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 334.481.000 partidaren kargura egingo dira. Partidaren zenbatekoa 29.000 euro da.

5. Diru-laguntzen zenbatekoa

Udalak gehienez ere diru-laguntza jasotzen duen programa baten kostuaren aurrekontuaren ehuneko 50 ordaindu ahal izango du.

Hala ere, Udalak izapidetza berezia eman ahal izango die udalerrientzat interes berezikoak diren programa batzuei eta programa horietarako eragiten duten kostuaren ehuneko 100eko diru-laguntza eman ahal izango du.

Diru-laguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gain finantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien diru-laguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino gehiago. Hainbat diru-laguntza jaso eta ondorioz gain finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Zuiako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, hain zuzen ere finantzatutako guztirako zenbatekoaren eta Udalak emandakoaren arteko proportziozko zenbatekoa.

Diru-laguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Zuiako Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

Zenbatekoa aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da.

Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, aldez aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

6. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, ALHAOn Deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita; interesatuek, 2019/2020 ikasturtean (Elkarterik gehienak) edo urte naturalean (Bidabarri Euskal Kultur Elkarte eta Gorbeiaiko Bazterra Mikologia Elkarte) egin beharreko ekintzen programa/proiektua aurkeztuko dute.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak aribideko urteko azaroaren 19rako aurkeztu behar dira.

2. Eskabideen eta agirien aurkezpena Udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

3. Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluaren aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

7. Dokumentazioa

Eskaera ofiziala eta inprimakia (Udalak emango ditu). Inprimaki bat bete behar da proiektu edo programako eta denboraldiko, eta diru-sarrera eta gastuen aurreikuspen orria sinatuta.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundearen Erregistroan legez eratuta eta erregistratuta dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada, eta toki erakunde txikiek ere ez.

Gizarte Segurantzako eta Ogasunaren Diruzaintza Nagusiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria, eta halakorik ezean zerga betebeharrekin egunean dagoelako zinpeko aitortpena edo Udalari horiek eskatzeko baimena ematea, I. eta II. eranskinen arabera. Beharrezkotzat joz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Komenigarria iritiz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Eskaeran eta I. inprimakian adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

8.2.1. Euskararen eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenaren arloko eta gizarte sustapenaren arloko programa eta proiektuetarako irizpideak:

– Programan parte har dezakeen pertsonen kopurua (aurreikuspena). Sexuaren arabera bereziak.

– Jarduerak zenbat egun iraungo duen edo zenbat jardunaldi (ikastaroak, lehiaketak, hitzaldiak, ekitaldiak eta abar) egin diren udalerrian.

– Autofinantzaketa. Proiektua aurreikusitako finantzaketaren arabera garatu ahal izatea.

– Gastu konputagarrien aurrekontua. Proiektu bakoitzaren premia baloratuko da, jarduera garatzeko. Gastu konputagarriak izango dira (puntuak kalkulatzeko baino ez) ondoren adierazten diren kontzeptuengatik eta gehienezko ehunekoengatik diruz lagundutako jardueri egotzi dakizkiekeenak:

– Monitorea-hizlariak-gidariak-epaileak: ehuneko 100.

– Jarduera egiteko guztiz beharrezkoak diren materialak/guneak alokatzea eta onik zaintzea: ehuneko 100.

– Antzerki emankizunak/erakusketak, bertso jaialdiak, kirolarekin lotutakoak, ipuin kontalariak, dantza, musika, eta abar: ehuneko 100.

– Argitalpenak (herritarrentzako interes orokorrekoak): ehuneko 100.

– Berariazko aseguruak jarduerarako: ehuneko 100.

– Museoetara, parke naturaletara, interpretazio zentroetara sartzeko txartelak, kultura ikustaldiak eta antzekoak: ehuneko 100.

– Material suntsigarria (jarduera garatzeko oinarrizko materiala): ehuneko 75.

– Dietak, garaikurrak eta sariak, erakundeak mantentzeko eta lanean aritzeko dituen gastu orokorrak, autobusak, garraioaren alokairua: ehuneko 50.

– Lunchak, kartelak, programak, publizitatea: ehuneko 25.

– Euskara: euskararen sustapena.

9. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari dirulaguntza eman edo ez ebatziko da.

9.1. Espedientea bideratzeko eta ebatzeko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna kultura arloko lehendakaria izango da.

Ebatzeko eskumena, aldiz, alkateak dauka.

9.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoreari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu:

Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari.

Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoreak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diru-laguntza eskatzen den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa, lortutako puntuak eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez.

Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judizialia aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegian. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabete epean errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza honela ordaindu ahal izango da:

1. Urteko programetan, alde zuzenetik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

2. Ezohiko programetan eta jarduera zehaztuta, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

3. Diru-laguntza ezinbestekoa bada jarduera finantzatzeko, haren zati bat aldeztu aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

11. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Zuiako Udalaren bulegoetan diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean epealdi honen barruan:

Aurtengo urriaren 30ean, Bidabarri Euskal Kultur Elkartea eta Gorbeaiako Bazterra Mikologia Elkartea izan ezik, aurtengo azaroaren 30ean amaituko baitzaie horiei justifikazioa aurkezteko epea.

12. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

- Egindako jarduerak.
- Aldiak: egunak eta orduak.
- Partehartzaileak. Sexuaren arabera bereiziak.
- Helburuak eta balorazioa.

– Jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, sinatuta. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

2) Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta bestelako gastu frogagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta gainerakoak:

- Emailea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira. 3) Zinpeko aitortpena: xede bererako edozein administrazio edo erakunde zein organismo publikoengandik diru-laguntzak edo laguntzak jasoko ditu. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babes aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharretakoa bat betetzen ez bada.
- Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du Udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; Udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

14. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

15. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo diru-laguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein diru-laguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

17. Arau hausteak eta zehapenak

Diru-laguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko IV. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteak.

18. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako Zuiako Udalak diru-laguntzak eta laguntzak arautzeko emandako ordenantza orokorrean eta Lege Orokorrean eta Araudi Orokorrean ezarritakoa hartuko da kontuan.

19. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarte bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta puntu bakoitzaren balioa zenbatetsiko da. Puntu bakoitzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituenean ezarriko da.

Puntu guztien baturari dagokion zenbatekoaren ehuneko 75 aurreratu ahal izango da, puntuaren balio zenbatetsia aplikatuta.

2020an Zuiako udalerrian egingo diren kultur programak, euskara sustatzeko programak eta gizarte programak: puntuazio baremoak,

| Partehartzaileen kopurua/onarpena | Puntuak |
|-----------------------------------|---------|
| 1-10 bitartean | 3 |
| 11-20 bitartean | 10 |
| 21-50 bitartean | 20 |
| 51-80 bitartean | 40 |
| 81-100 bitartean | 55 |
| 101 baino gehiago | 80 |

| Egun/jardunaldien kopurua | Puntuak |
|----------------------------------|----------------|
| Egun bat | 1 |
| 2-7 bitartean | 5 |
| 8-15 bitartean | 10 |
| 16-30 bitartean | 15 |
| 31-60 bitartean | 25 |
| 61 baino gehiago | 50 |

| Autofinantzaketa (udal diru-laguntza zenbatu gabe) | Puntuak |
|-----------------------------------------------------------|----------------|
| 10.000 euro baino gehiago | 90 |
| 6.000-9.999 euro bitartean | 60 |
| 5.999-4.500 euro bitartean | 45 |
| 4.499-3.000 euro bitartean | 30 |
| 2.999-2.000 euro bitartean | 20 |
| 1.999-500 euro bitartean | 10 |
| 499 euro baino gutxiago | 5 |

| Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen aurrekontua | Puntuak |
|---------------------------------------------------------|----------------|
| 1-499 euro bitartean | 3 |
| 500-2.499 euro bitartean | 10 |
| 2.500-3.999 euro bitartean | 15 |
| 4.000-5.499 euro bitartean | 30 |
| 5.500-6.999 euro bitartean | 40 |
| 7.000-8.499 euro bitartean | 50 |
| 8.500-9.999 euro bitartean | 65 |
| 10.000 euro baino gehiago | 80 |

| Euskara | Puntuak |
|------------------------------------------------|----------------|
| Euskara erabiltzeko edota sustatzeko jarduerak | 40 |

| Emakume eta gizonen arteko berdintasuna | Puntuak |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|
| Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako ekintzak (Hala nola, emakumeen jabekuntza sustatzea bideratutako hitzaldiak edo tailerrak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dituzten espazioen bisitak, edo emakumeen ekarpen soziala agerian jartzen dituztenak, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzen dituzten ekintzak etab) | 40 |

| Entitatean dauden emakume eta/edo nesken kopurua, eskaera urtearen urtarilaren 1ko datan | Puntuak |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|
| Entitatea osatzen duten pertsonen ehuneko 40a edo gehiago emakumeak eta/edo neskatilak dira | 20 |

Udalak deitutako bileretan parte-hartzea edo horietara bertaratzea: 10 puntu.

I. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....
Harremanetarako telefonoa:..... Faxe:.....E-posta:.....
Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....

BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak kultura, euskararen sustapen edota gizarte arloan 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia ebatzi baino lehen, Arabako Foru Ogasunetik beharrezkoa den informazioa ofizioz eskura dezan, ordezkatzeko duen Erakundeak edo Elkarteak aipatu Foru Ogasunarekin zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "Kulturako Diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

II. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....

Harremanetarako telefonoa:..... Faxa:.....E-posta:.....

Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak kultura,
euskararen sustapen edota gizarte arloan 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia
ebatzi baino lehen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzatik beharrezkoa den informazioa ofizioz
eskura dezan, ordezkatzeko duen Erakundeak edo Elkarateak zerga-betebeharrak beteta dituela
egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "Kulturako Diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK**1. Xedea**

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2020an eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

– Euskaltegietan edo HABEk homologatuetako zentroetan egindako ikastaroak (2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era arte).

– Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2020an.

2. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenago, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

– Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria; bertan, interesdunak egin dituen eta gainditu dituen mailak agertuko dira, bai eta aprobetxamendua eta asistentzia ere; era berean, zentroak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak adierazi behar dira.

4. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

– Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoik azalduta).

– Ikastaroko maila gainditu edo, bestela, ikasketa orduak ondo aprobetxatu direla frogatu.

– Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari.

– Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

– Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

5. Eskaerak aurkezteko epealdia

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko.

Eskaerako dokumentazio osoa Zuiako Udalaren bulegoetan aurkeztu behar da.

6. Balorazio irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; Udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa

Alkate-udalburuak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2020ko ekitaldiko aurrekontuko 335.480.000 partidaren kredituari egotziko zaizkio.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroko matrikularen ehuneko 85 izango da, 600 euro urtean gehienez. Barnetegien kasuan ezin dira sartu diru-laguntzan mantenu gastuak ez ostatu gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

9. Justifikatzea eta ordaintzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA (EIT) EGITEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

Zioen adierazpena

Zuiako Udalak egoki iritzi dio bere biztanleei laguntza emateari eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko betebeharren kostuak ordaintzeko. Betebehar horiek eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 241/2012 Dekretuan eta horren ondorengo aldatetetan jasotzen dira.

Ondorioz, oinarri hauen helburua da laguntzen eskabidea egiteko baldintzak ezartzea eta, hala badagokio, eraikinen ikuskapen teknikoaren kostua ordaintzeko diru-laguntza ematea.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da Zuiako udalerriko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenaren kostua zati batean ordaintzeko Zuiako Udalak ematen dituen diru-laguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

2. Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzaren onuradunak honakoak izango dira: pertsona fisikoak edo erkidegoak, bizitegitarako erabilera duten eraikinen jabeak edo gozamedunak, eraikinek berrogeita hamar urtetik gora badituzte edo katalogazio edo babes motaren bat badute, eta eraikinen ikuskapen teknikoa egin ostean, diru-laguntzen eskaera egiten dutenak.

Diru-laguntza emateko eskatzailea Zuiako udalerrian erroldatuta egon behar da, deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean. Segurtasun arrazoiak direla eta salbuetsita geratuko liratekete, genero indarkeriarekin biktima direnak, beti ere Genero Indarkeriatik Babesteko Erabateko Neurrien Lege Organikoaren abendu 28ko 1/2004 Legearen 23. artikulua araberako, egoera hori ziurtatzen dutenak.

3. Diru-laguntza jasoko duten jarduerak

Diru-laguntzaren xede diren jarduera hauek jasoko dute diru-laguntza: pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileen titulartasuneko den eraikinen ikuskapen teknikoaren txosten-galdetegia egitea eta irizpena egitea, aurrekontu ekitaldian egindakoa.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza egindako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 50era artekoa izango da; familia bakarreko etxeen kasuan, gehienez ere 200 eurokoa, eta jabe erkidegoen kasuan, gehienez ere, 500 eurokoa.

Genero indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten pertsonentzat ehuneko 60ra artekoa izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 220 eurokoa.

Diru-laguntzen aurrekontu aurreikuspena 2020ko ekitaldirako 6.000 eurokoa izango da, 2020ko abenduaren 30erako, eta ez da luzatzeko aukerarik egongo.

5. Eskaera

Laguntzak jaso nahi dituzten eraikinen jabeek eta jabe erkidegoek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute udal bulegoetan:

- Normalizatutako diru-laguntza eskaera, behar bezala beteta.
- Eraikinen ikuskapen teknikoa egin duen enpresak emandako jatorrizko faktura, eta horren kopia, konpultsatzeko, eta hori ordaindu izanaren ziurtagiria.
- Banketxe edo aurrezki-erakunde batek emandako agiria, ziurtatzen duena eskatzaileak kontu korrante bat duela bere izenean diru-laguntza eskatzen duen urtean.
- Halaber, diru-laguntza emateko, eraikinen ikuskapen teknikoaren irizpena udal bulegoetan entregatu beharko da.
- Segurtasun arrazoiak direla eta erroldatuta egoteagatik salbuetsita dauden pertsonak genero indarkeriarekin biktima izateagatik, Genero Indarkeriatik Babesteko Erabateko Neurrien Lege Organikoaren abenduko 28ko 1/2004 Legearen 23.artikuluaren arabera, egoera hori ziurtatu beharko dute.
- Zinpeko aitortpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

6. Diru-laguntza ebazteko eskumena duen organoa

Alkate-lehendakariak izango du eskumena diru-laguntza emateko, dagokion informazio batzordeak txostena eman ondoren.

Teknikariek eskaerak aztertuko dituzte eta laguntza emango diote instrukzio organoari.

7. Onuradunen betebeharrak

Pertsona onuradunaren familia unitatea egunean egon beharko da Zuiako Udalarekin dituen zerga eginbeharretan.

8. Diru-laguntzen xede kontrola

Zuiako Udalak datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzaren erabilera egokia egiaztatzeko egoki jotzen dituen jarduerak egiteko eskubidea izango du.

9. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo izkutatzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Zuiako Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

ZUIAKO UDALERRIAN HAURREN HARRERA PROGRAMAK SUSTATZEKO OINARRI-ARAUAK

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontu mugen barruan, diru-laguntzak emanez laguntzea 2020an Zuiako familiek bertan hartzeari egoera oso larrian dauden herrialdeetako umeak, adingabe horien ongizatea sustatzeko, eta gure udalerriko biztanleengan elkartasunaren benetako kultura bat sortzeko, elkarte, antolakuntza eta irabazteko xederik gabeko beste entitate batzuen bermearekin.

Harrera horien bidez, etortzen diren umei sorlekuan falta zaiena eskaini behar zaie, hau da, ohiko bizimoduan urri duten ongizaterako behar duten guztia, hondamendi naturalak edo gatazka armatuak direla-eta edo beste inguruabar batzuen ondorioz.

2. Onuradunak

Udalerrian erroldatuta dagoen adindun orok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak, modu frogagarrian egiaztatzen badu adingaberen bati harrera egin diola deialdi honen xedearekin bat datorren eran. Ezingo dira onuradun izan udal tasa eta zergen ordainketan egunean ez dauden pertsonak. Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan ere egunean egon beharko dira.

Onuradun izateko, nahitaezkoa da Zuian erroldatuta egotea, etengabe eta gutxienez urte betez, deialdi hau ALHAOn argitaratu aurretik.

Diru-laguntzak alde batera utzita, Zuian erroldatutako pertsonak hartutako haurrak bertan erroldatutzat hartuko dira, udal zerbitzu eta jardueren prezio publikoak arautzen dituen udal ordenantzaren eraginetarako.

3. Diru-laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak

Arau honen xedea betetzeko finantzaketa, gehienez ere 5.000 eurokoa, dagozkion aurrekontuetako partida honen kontura egingo da: 231.780.000; kontzeptua: laguntza humanitariaoa.

Laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, harreraren iraupena kontuan hartuta, taula hau baliatuko da:

- Bi aste: 350 euro.
- Lau aste: 450 euro.
- Sei aste: 550 euro.
- Zortzi aste: 650 euro.

Egindako eskaerei dagozkien zenbatekoen baturak dagoen aurrekontua gainditzen badu, partidaren guztirakoa onuradunen artean hainbanatuko da. Aitzitik, kredituan soberakina badago, garapenerako lankidetzako atalari gehituko zaio.

4. Diru-laguntza eskatzeko prozedura

a. Aurkezteko tokia eta epea: eskabideak Zuiako Udaletxean aurkeztuko dira, edo bestela, posta ziurtatu bidez nahiz Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabilita bidali, abuztuaren 30 baino lehen.

b. Eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak erabat eta berariaz onartzea.

c. Eskatzaileek aurkeztu behar dituzten agiriek nahikoa izan behar dute harrera modu frogagarrian egiaztatzeko (programa antolatzen duen antolakuntzak eginiko ziurtagiria edo antzekoa, harreraren ezaugarri nagusiak zehazten dituen).

d. Era berean beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko da. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

5. Deialdia ebazteko erabakiak hiru hilabeteko epean hartu beharko dira gehienez ere, proiektuak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta eskaerek esanbidezko ebazpenik izan ez badute, ezezkoa eman zaiela ulertuko da.

6. Deialdi honen eta beronen ondoriozko administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

7. Zuiako Udalak beretzat gordetzen du, berariaz, diruz laguntzeko aurrekontuetan jaso den kopurua deialdi honen arabera agortzeko edo ez agortzeko eskumena, baita deialdi esleitu gabetzat jotzeko ere, aurkeztutako programei buruzko txostenetatik ondorioztatzen bada ez datozela bat deialdiaren xedeekin.

8. Diru-laguntza galtzea

Onuradunek deialdi honetan jasotako diru-laguntzak gal ditzakete, aurrez espedientea irekita, datuak faltsutu badira laguntza eskabideetan edo aurkeztutako agirietan.

Diru-laguntza galtzeak ekarriko du itzultzea ordura arte jasotako kopuruak eta sortutako berandutze korrituak, diru-laguntza ordaindu zen unetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den arte, Zuiako Udalarari transferentzia eginez.

Jasotako diru-laguntzak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzei buruzko Orokorraren, 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako kasuetan itzuli beharko dira, bertan ezartzen den bezala.

9. Arau hausteak eta zehapenak

Deialdi honetatik eratorritako arau hauste eta zehapenen gaian, emandako diru-laguntzei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzei buruzko Orokorraren, 52. artikulutik 69.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

10. Lege araubidea

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, aplikatuko da lege-arau hauetan ezarritakoa: Zuiako Udalaren diru-laguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza, toki korporazioen zerbitzuen arautegia, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta aplikatzekoa den gainerako legeria.

ZUIAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Zuiako udalak badaki zer-nolako garrantzia duen hezkuntzak haurren prestakuntzan eta ezagutzetan nahiz balioetan oinarrituta gero eta gehiago prestatzen den gizartearen eraikuntzan, eta jakin badaki, halaber, familiek hezkuntza egituran betetzen duten eginkizuna garrantzitsua dela, familiak funtsezko faktore baitira hezkuntzaren berariazko helburuak betetzeko, horren oinarritzko zutabeetako bat izanik. Izan ere, gaur egun ukaezina da hezkuntza komunitatearen eta, bereziki, familien parte-hartzea eskola arrakasta bermatzen duen faktorea dela.

Udalak hainbat jarduera garatu ditu udalerriko gurasoen elkarten jarduna sustatzeko eta aldizka lagundu die beren jarduna betetzen.

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da horrelako elkarteak egon daitezzen sustatzea, haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eta ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan eragin garrantzitsua duten eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak sortutako gastuen zati bat ordaintzea. Era berean, hezkuntza arloko laguntza bereziko beharrak dituzten ikasleentzako baliabide pedagogikoak ezarri nahi dira udalerrian dauden ikastetxeetan. Behar horiek curriculumaren egokitzapenari buruzko instrukzioetan eta indarren dagoen legerian ezarritako beharrezko hezkuntzako salbuespenetan ezarrita daude.

1. Deialdiaren helburua

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedagogikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarten eta sistemaren beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

2. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen onuradunak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon behar dute.

Laguntza jaso ahal izateko, gurasoen elkarteak Zuiako Udalari zerga-arloan ordaindu beharrekoak ordainduta izan beharko ditu eta helburu bereko beste diru-laguntza edo laguntzarik jaso duen jakinarazi.

3. Diruz lagunduko diren jarduerak

Deialdiaren barruan alor hauetarako laguntzak emango dira:

3.1. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak 2019-2020 ikasturtea.

Ikasleentzako jarduera osagarriak eta curriculumetik kanpokoak, eta ikasle zein ikastetxeetako gurasoentzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeak sortutako gastuetarako laguntzak emango dira atal honetan.

Jarduerak 2019ko irailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespina beharko du jarduera proposamenak, eta 2019-2020 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon.

3.2. Behar psikopedagogikoak 2020.

Arlo honetako diru-laguntzak dagokion ikastetxeko ikasleen behar psikopedagogikoak ordaintzera zuzendutako gastuetarako emango dira. Behar horiek ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak zerrendatu eta zenbatuko ditu.

Jarduera horiek batez ere ikastetxean bertan garatuko dira, beharrezko iraupenarekin eta behar bezala aprobetxatuz eta, arau orokor gisa, eskola egunetan.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespina beharko du laguntza psikopedagogiko honen proposamenak, eta 2019-2020 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon, ikastetxeko teknikariek dagokion txostena egin ondoren.

3.3. Hezkuntza proiektuak.

Atal honetako laguntzak ikastetxearen esparruan IGEek sustatuko proiektuak egiteko gastuetarako emango da, proiektu horiek udal honentzat interesgarriak izan ahal badira. Proiektu horiek ikastetxeko ordezkari organo gorenaren babesa izan beharko dute. Diru-laguntzaren zenbatekoa kostuaren ehuneko 100era artekoa izan ahalko da eta kopurua 2020ko aurrekontuan bideratutako jatorrizko partidatik hartuko da.

4. Aurrekontu zuzkidura

Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoei dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partidaren kargura egingo dira: 326.481.000 (16.500 euro) eta 326.481.060 (3.000 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 16.500 eurokoa izango da.

5. Eskabideak aurkeztea

Deialdian parte hartu nahi duten elkarteek eskabidea aurkeztu beharko dute, baldintza hauei jarraiki:

5.1. 2019/2020 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun baliouduneko izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

5.2. Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo Herri Administrazioen administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

5.3. Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

5.4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaienek.

6. Berariazko dokumentazioa

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu). Horrekin batera, ikasturte osorako aurreikusitako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak azaltzen dituen memoria aurkeztu beharko da.

Halaber, beharrezkoa balitz, ikasturte osorako aurreikusitako laguntza psikopedagogikoen programa, txosten teknikoarekin batera, eta dagokion ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespina gehituko dira. Edozein kasutan, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria bete eta errespetatu beharko da.

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua aukeratzeari dagokionez, kabinete psikopedagogikoen aurrekontua eta ikastetxeko langile espezializatuek egindako txostena gehituko dira, eta hautatutakoa aukeratzeko kontuan izandako arrazoi ekonomikoak, teknikoak zein profesionalak adieraziko dira.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta elkarte eta erakundearen erregistroan legez eraturik eta erregistratuta dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada.

Gizarte segurantzako eta ogasunaren diruzaintza nagusiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria, eta halakorik ezean zerga betebeharrekin egunean dagoelako zinpeko aitortpena edo udalari horiek eskatzeko baimena ematea, II. eta III. eranskinen arabera. Beharrezkotzat joz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

7. Laguntzak emateko prozedura

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

7.1. Espedientea bideratzeko eta ebatzeko eskumena daukan organoa.

Diru-laguntza emateko eskumena Alkateak izango du, informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

7.2. Aztertzea eta ebaztea.

Teknikariak eskaerak aztertu eta instruktoari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu: ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari, eta eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeraren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoariak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diruz lagunduko den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtso aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judizialari aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsoak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko prozedura.

7.3. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak. 2019-2020 ikasturtea.

Diru-laguntza jasoko dute, lehentasunez, gurasoen elkarrekin garatzen dituzten jarduera osagarriak eta curriculum eta eskolaz kanpokoak, horien azken helburua haurren garapen fisiko eta intelektuala baldin bada. Honako programa hauek lehentasuna izango dute:

- Euskararen erabilera sustatu eta bultzatzen dutenek.
- Eskola komunitatearen parte-hartzea eta kohesioa sustatzen dutenek.
- Kulturaren hedapen eta sustapenerako jarduerak eta kirol praktikakoak, ikastetxeko programaren alderdi osagarriak lantzen badituzte.
- Neskatala, mutikoen eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten programek edota ekintzek.
- Baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden taldeen parte-hartzea eta jarduna bultzatu eta bermatzen dituzten programek.

7.4. Behar psikopedagogikoak 2020.

Atal honetan emandako laguntzaren zenbatekoa eskaeran jasotako gastu osoa izango da, dagokion partidaren aurrekontuko mugarekin. Horrela, deialdi honetan honelako laguntzetarako ezarritako baldintza guztiak beteko dira.

Laguntza hori hiru hilabeteka ordaindu ahal izango da, IGEEK dagokien ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziak aurkeztutako fakturak jaso ondoren. Ikastetxe bakoitzeko IGEEK nahiz zuzendaritzek dagokion kabinete psikopedagogikoak bereganatutako betebeharrak betetzen dituela zainduko dute.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak

8.1. Eskaeran (inprimakian eta I. formularioan) adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

8.2. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

- Kirol eta kultura arloko eskolaz kanpoko jarduerak: ehuneko 50. euskaraz garatzekotan ehuneko 70era igoko dena.
- Eskolaz kanpoko jardueretarako materiala: ehuneko 50.
- Antzezlanak, bertsoak, kirol ekitaldiak, ipuin kontalariak, dantza, musika, etab.:ehuneko 50. euskaraz garatzekotan ehuneko 70era igoko dena.
- Argitalpenak (hezkuntza arloan interesgarritzat jotakoak): ehuneko 50. euskaraz garatzekotan ehuneko 70era igoko dena.

- Kultur irteerak eta txangoak eta antzekoak: ehuneko 50.
- Kartelak, programak, publizitatea: ehuneko 25.
- Euskara: euskararen sustapena: ehuneko 70.
- Berdintasuna: emakumen eta gizonen berdintasun sustapena: ehuneko 70.

Kontzeptu bakar batengatik diruz lagundu ahal izango da jarduera edo ekintza bakoitza.

9. Laguntzaren bateragarritasuna

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, baldin jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugara arte.

Zuiako Udalak beste deialdi batzuetan berariaz diruz laguntzen dituen jarduerak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

10. Elkarte onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradun diren elkarteek betebeharrak hauek izango dituzte:

- 10.1. Laguntza jaso duten jarduerak edo proiektuak burutzea.
- 10.2. Zuiako Udalak ikuskatzeko eta finantzak kontrolatzeko egiten dituen lanak onartu eta laguntzea.
- 10.3. Jarduera edo proiektu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.
- 10.4. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, hura eman duen erakundeari jakinaraztea.
- 10.5. Guraso elkarteek jende orori zuzendutako esku-orriak, kartelak eta abar eginez gero, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte, eta udalaren logotipoa erantsi, beti ere genero estereotipoak erabili gabe.
- 10.6. Diruz lagundutako jarduerak izan ditzakeen arriskuen erantzukizuna bere gain hartu beharko du elkarteak eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguruia kontratatu.

Ondoren azalduko diren kontzeptuek eragiten dituzten gastuak ezin dira zenbatu diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko puntuazioaren baremoaren eta gastuen justifikazioaren arabera: otorduak, oro har, joan-etorriak norbere ibilgailuan eta faktura bidez frogatu ezin diren gastuak ere ezin dira zenbatu (ikusitako gastuak frogatzeko modua).

11. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarte bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta zenbatekoaren ehuneko 75era arte aurreratu ahal izango da. Diru-laguntzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituen epean ezarriko da.

12. Diru-laguntza ordaintzea

12.1. Urteko programetan, alde aurretik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

12.2. Ezohiko programetan eta jarduera zehaztuz, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

12.3. Diru-laguntzaren zati bat alde aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12.1. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

13. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean 2020ko urriaren 30a baino lehen.

14. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

– Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

Egindako jarduerak. Aldiak: egunak eta orduak. Parte-hartzaileak, sexuaren arabera bereizita. Helburuak eta balorazioa. Jarduerak sortutako sarreraren eta eragindako gastuen balantzea.

Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta hartu agiriak, bankuaren ordain-ketaren frogagiriarekin (fotokopia konpultsatuak), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak eta gainerakoak:

- Emailea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

– Zinpeko aitortpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

– Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

15. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babes aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.

— Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrretako bat betetzen ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; Udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

16. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

17. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

I. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....
Harremanetarako telefonoa:..... Faxa:.....E-posta:.....
Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....

BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak Zuiako ikasleen gurasoen elkarteei 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia ebatzi baino lehen, Arabako Foru Ogasunetik beharrezkoa den informazioa ofizios eskura dezan, ordezkatzeko duen Erakundeak edo Elkarteak aipatu Foru Ogasunarekin zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, , jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "IGEentzako diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

II. Eranskina

Baimena

.....jaun/andreak
.....NAN duenak,.....Batzorde/Elkarte/Batzarraren izenean,
zeinak..... IFK duen, eta helbidea honako hau izanda:.....
Harremanetarako telefonoa:..... Faxa:.....E-posta:.....
Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian honako egun honetan eman zuen izena:
.....

BAIMENA EMATEN DIO Zuiako Udalari, Zuiako Udalak Zuiako ikasleen gurasoen elkarteei 2020. urterako egindako diru-laguntzen deialdia ebatzi baino lehen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzatik beharrezkoa den informazioa ofizios eskura dezan, ordezkatzan duen Erakundeak edo Elkarteak zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatze aldera.

Murgian, 2020ko -ren n.

(Sinadura eta zigilua)

Zuiako Udalak jakinarazten du, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazi dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honen jabetzako "IGEentzako diru-laguntzak" fitxategian gordeko direla, horren helburua pertsona eta erakunde ezberdinen diru-laguntzak kudeatzea izanik. Nahi izanez gero, datu horiek ikusi, zuzendu, deuseztatu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal dituzu udal-bulegoetara joz: Udaletxe plaza, 1 - 01130 Murgia.

2019-2020 IKASTURTEAN IKASI ETA PRESTATZERA JOATEKO GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. Helburua eta xedea

Deialdi honen xedea Zuiako Udalak 2020an ikasketetarako emango dituen diru-laguntzak arautzea da. Onuradunak 2019/2020 ikasturtean udalerritik kanpo unibertsitateaz kanpoko ikasketara arautuan, batxilergoan edo lanbide heziketan ikasten ari diren ikasleak izango dira. Ezinbestekoa da ikasketak Zuiako udalerrian egitea ezinezkoa izatea.

Era berean, Zuiako Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroetara joateko udalerrian erroldatutako pertsonak eta langabetuak zuzenean lan-munduratzera zuzendutako ikastaroetara joateko egiten duten garraioa barne hartuko da.

2. Aurrekontu-kreditua

2020ko aurrekontuan 11.000,00 euro ezarri dira 326.481.020 gastu partidan 2019/2020 ikasturtean ikasketetarako laguntzak emateko. Halaber, gastuen aurrekontuetako 241.480.000 partida, 3.000,00 eurokoa, ere badago langabeziaren aurka egiteko laguntzetarako.

3. Onuradunak

Ikasturtea hasteko egunean Zuiako udalerrian erroldatuta, gutxienez, urtebete daramaten (eta ikastaroa bukatzen den egunera arte, hori barne, erroldatuta jarraitzen duten) unibertsitateaz kanpoko, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak eta ikasturtea hasteko egunean Zuiako udalerrian erroldatuta, gutxienez, urtebete daramaten (eta ikastaroa bukatzen den egunera arte, hori barne, erroldatuta jarraitzen duten) eta Zuiako Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroak egiten dituzten pertsonak parte hartu ahal izango dute diru-laguntza deialdi honetan, bai eta lan-munduratzera xede argia izanik erakunde publikoek sustatzen dituzten ikastaroak, unibertsitate-ikasketak izan ezik, egiten dituzten pertsona langabetuek ere.

Unibertsitate-ikasketak direla-eta, laguntza-deialdi honek ondorengoak barne hartzen ditu: unibertsitate-graduak ikasketak ofizialak, karrera-amaierako proiektuak barne, eta musika eta dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinu eta kirol arloko ikasketen goi-mailako gradua. Ondorengo ikasketak kanpo gelditzen dira: edonolako masterrak, doktoregoak, arlo zehatzetako adituak, beste ikasketak batzuetara sartzeko prestakuntza-ikastaroak edo, oposaketak eta antzekoak, ikerlanak, gradu ondokoak eta espezializazioak eta urrutiko ikasketak bezalako alderdiak.

Genero-indarkeriaren biktimak salbuetsita egongo dira erroldatuta edo ikastaroak dirauen bitartean erroldatuta egotearen betebeharrak. Beren eskaerak lehentasuna izango dute, eta ez da inoiz laguntza hainbanatuko. Horretarako, egoera hori egiaztatu beharko da kondena-epai bidez, biktima babesteko aginduaz eta, salbuespen gisa, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima delako susmoak daudela dioen fiskaltzaren txostenaren bitartez, babes-agindua ematen den bitartean.

4. Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira.

- Pertsonaren NANA; adingabea bada, legezko ordezkariarena.
- Diru-laguntza zein banku-kontutan ordainduko den, diru-laguntza jasoz gero.
- Batxilergoko edo LHko ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen ziurtagiria eta ikasketa-espeditente pertsonala; matrikulatutako ikasgaien ehuneko 30 gainditu beharko da.
- Unibertsitate-ikasketen kasuan, dagokion ikasturteko nota-agiria. Matrikula gutxienez 40 kreditukoa izango da eta gutxienez ehuneko 30 gainditu beharko da.
- Ikastaroari probetxu atera izanaren ziurtagiria, pertsona langabetuen kasuan.

5. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

– Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emaila adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

– Onuradunaren familia-unitateak Zuiako Udalarekin egunean eduki behar ditu zerga-betebeharrak.

6. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko irailaren 30ean amaituko da, udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroen kasuan izan ezik, ikastaroa amaitu arte luzatuko baita horien epea, 2020ko abenduaren 15eko mugarekin. Egun horiek jaiegun izanez gero, hurrengo laneguna hartuko da erreferentziazat.

Eskatzen den dokumentazio osoa Zuiako Udalaren bulegoetan aurkeztu behar da.

7. Balorazio-irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira eta Udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

8. Eskaerak ebazteko organo eskuduna

Alkate-udalburuak emango du ebazpena, informazio-batzordeak dagokion txostena egin ondoren.

9. Laguntzaren zenbatekoa

Onuradunentzako laguntzen gehieneko zenbatekoa kopurua finkoa izango da eta ikasleek bizileku duten herriaren eta dagokien ikastetxea dagoenaren arteko distantziaren arabera ezarriko da.

- 40 km arteko distantzia: 150,00 euro.
- 40 eta 80 km bitarteko distantzia: 175,00 euro.
- 80 km-tik gorako distantzia: 200,00 euro.

Distantziak ezartzeko <http://maps.google.es> web tresna erabiliko da, eta ibilbiderik motzena izango da aintzat.

Pertsona langabetuentzako laguntzen kasuan, gehieneko muga hori 150 eurokoa izango da eta egindako ikastaroaren edo ikastaroen iraupenaren arabera emango dira, gutxienez 25 ordukoa izanik, ondorengo taularen arabera:

| IKASTAROAREN IRAUPENA | LAGUNTZAREN ZENBATEKOA |
|---------------------------|------------------------|
| 0 eta 24 ordu bitartean | 0 euro |
| 25 eta 50 ordu bitartean | 70 euro |
| 51 eta 75 ordu bitartean | 75 euro |
| 76 eta 100 ordu bitartean | 100 euro |
| 100 ordutik gora | 150 euro |

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da zerbitzuaren kostua baino handiagoa izan.

Aurrekontuan bideragarri dagoen zenbatekoa kopuru horiek finantzatzeko bestekoa izan ezean, saldo horren mugaraino hainbanatuko dira laguntzak.

10. Justifikatzea eta ordaintzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza, eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan.

11. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

OINARRI HORIETAN EZARTZEN DIRA ZUIA UDALERRIKO PERTSONENTZAKO ETA KOLEKTIBO AHULENTZAKO ETXEBIZITZA ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Xedea

1. artikulua

Honen helburua da etxebizitza alokatzeko laguntzak arautu behar dituzten oinarri arautzaileak onestea, pertsonak eta beste kolektibo ahul batzuek Zuia udalerrian alokairu araubidera jo ahal izateko, beren emantzipazioari bide emateko. Laguntzak norgehiagoka araubidean emango dira, eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa gauzatzeko.

Onuradunak

2. artikulua. Onuradunak

Laguntzen onuradun izan daitezke, indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura, dagokion instantzia aurkezteko unean eta diruz laguntzeko epearen barruan, araudi honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak, banaka nahiz familia edo bizikidetzata unitateetako kide gisa:

- a) 18 urtetik gorakoak.
- b) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak eta seme-alabak.
- c) COVID 19aren pandemiak eragindako alarma egoeran deklaraturako denboraldian, kaleratze, ABEEE, eta abarren ondorioz lan baldintzak kaltetu zaizkien eta gizarte alokairu erregimeneko udal etxebizitzan esleipendun diren familiak. Hala denean, dagokion dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko dute egoera hori.

Onuradunen eskakizunak

3. artikulua. Onuradunen eskakizunak

a) Pertsona eskatzaile edo bizikidetzata unitateko pertsona batek ere ez izatea etxebizitarik jabetzan eta ez izatea azalera edo gozamen eskubiderik, herentzia edo dohaintza bidezko etxebizitzaren titularkidetasun kasuan salbu, betiere titularkidetasunak ehuneko 50 gainditzen ez badu eta partaidetzen balioak 75.000 euro gainditzen ez badu.

b) Honako kasu hauek salbuesten dira:

- Bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak.
- Etxebizitza judizialki esleitu izana bikoteko beste kideari, banantze edo dibortzio prozesuaren edo izateko bikotearen amaierako prozesuaren ondoren.

c) Eskatzaileek Zuian erroldatuta egon beharko dute eta alokatutako etxebizitza beren ohiko eta etengabeko etxea izango da, genero indarkeriaren biktima diren pertsonen kasuan izan ezik, segurtasun arrazoiengatik. Egoera horri eutsi beharko zaio, laguntza jaso bitartean; eskakizun hori udalak egiaztatuko du.

d) Pertsona guztiek izan beharko dituzte Zuiako Udalaren zerga, tasa eta zehapen guztiak egunean, bai eta administrazio batzordeenak ere.

e) Laguntzak jaso ahalko dituzte 3.000 euro eta 25.000 euro arteko diru-sarrera haztatuak dituzten pertsonak, baldin eta banakako eskaera bada, eta 30.000 eurokoa, elkarrekin egindako eskaerak badira. Sarrera haztatuak kalkulatzeko, aintzat izango da Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan xedatutakoa.

Diru-sarrerak haztatzeko honako hauek izango dira kontuan: diru-sarrera konputagarriak, bizikidetzaren unitateko pertsona kopura, hala badagokio, eta diru-sarrerak dituzten bizikidetzaren unitateko kide kopurua, gutxienez horien ehuneko 20 ekartzen dutenean.

Aipatu 38/2008 Dekretuaren 21. artikuluan zehaztutakoak dira diru-sarrera konputagarriak.

– EAEn Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortza aurkeztu behar izan dutenek eta beharrik izan ez arren, aurkeztu dutenek, dagokion PFEZ aitortzenaren edo aitortzenaren oinarri ezargarri orokorrak eta aurrezkikoak eta laneko etekinei ezarritako hobariak zenbatuko dira. Eta dagokionean, baita salbuetsitako errentak ere.

– Errentaren gaineko zergen aitortza EAEn aurkezteko betebeharrak ez duten pertsonen kasuan, diru-sarrera hauek zenbatuko dira: a) Lan etekinei eta langabezia prestazioei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako sarrera gordinen ehuneko 95; eta b) pentsioei eta langabezia-sorospenei eta halaber zergarik gabeko dietei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru-sarrera gordinen ehuneko 100.

Diru-sarrerak haztatzeko, formula hau erabiliko da:

$DH = DK \times N \times A$, honako hauek izanik:

DH: diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: diru-sarrera konputagarriak

N: haztapan koefizientea, bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera.

A: Haztapan koefizientea, diru-sarreraren ehuneko 20 gutxienez irabazten duten bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren arabera.

| N= KIDE KOPURUA |
|--------------------------|
| 1 kide: 1,00 |
| 2 kide: 0,95 |
| 3 kide: 0,90 |
| 4 kide: 0,85 |
| 5 kide: 0,80 |
| 6 kide: 0,75 |
| 7 kide edo gehiago: 0,70 |

| A= HARTZAILE KOPURUA |
|-------------------------------|
| 1 hartzaile: 1,00 |
| 2 hartzaile: 0,90 |
| 3 hartzaile edo gehiago: 0,85 |

Bananduen edo dibortziatuen kasuan, diru sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, seme eta alaben mantenuagatik pentsioari dagozkion zenbatekoak kenduko dira, bai eta hileko hipoteka kuoten zenbatekoa ere.

Era berean, ez zaie exijituko gutxieneko diru sarreren eskakizuna betetzeko genero indarke-riaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei eta seme-alabei.

Diru sarreren eskakizuna betetzen dutela ulertzeko, exijituko da horien ehuneko 90, gutxie-nez, lan etekinetatik etortzea eta/edo jarduera ekonomikoan, profesionalen eta artistikoen eta/edo etekinetatik etortzea.

Etxebizitza eskakizunak

4. artikulua. Etxebizitzen eskakizunak

a) Laguntzaren helburu den etxebizitzak Zuia udal mugartean egon beharko du, eta dagokion bizigarritasun lizentzia izan beharko du.

b) Ez dira laguntzen helburu izango honako egoeraren bat betetzen duten eskabideak:

– Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

– Azpierrentamenduak.

– Logelen errentamenduak.

– Etxebizitza gisa erabiltzen diren eta hirigintza araudiak eskatzen dituen bizigarritasun eskakizunak betetzen ez dituzten lokalak.

– Alokabide programan sartzen diren etxebizitzak.

c) Errentamendu kontratuaren helburu den etxebizitzaren errenta ezingo da izan hilean 700 euro baino gehiagokoa gehienez bi logelako etxebizitzen kasuan eta 950 euro baino gehiagokoa, hiru logelako edo gehiagoko etxebizitzen kasuan. Kontratuak ezingo du iraun urtebete baino gutxiago.

Eskabideak

5. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Zuiako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren 6. artikuluan ezarritakoaz gainera, honako hauek ere badira onuradunaren betebeharrak:

– Diru-laguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.

– Zuiako Udalari eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman behar diote.

– Eta diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek eskabidea beteta aurkeztu beharko dute udal bulegoe-tan, 2020ko azaroaren 30era arte, honako dokumentazio honekin:

Oro har, kasu guztietarako:

1. Eskaera inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Laguntzaren eskatzaile bakoitzaren indarreko NANaren eta egoitza txartelaren edo pasa-portearen fotokopia.

Lehen bi agiri hauek gizarte alokairuaren kasuan aurkeztu beharreko bakarrak dira, eta horiekin batera, alarma egoeran zehar ABEEE, kaleratze edo negozio ezintasunaren egoeran egon izanaren egiaztatzea.

Adingaberik egonez gero, gainera, familia liburuaren fotokopia aurkeztuko da. Azken dokumentu hori beharrezkoa izango da, nolana ere, ondorengoak alegatuz gero filiazioa egiaztatzeko.

3. Etxebizitzaren errentamendu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz laguntzeko epea hartzen duena.

4. Kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentua.

5. 18 urtetik gorako eskatzaile guztiak estatu mailan etxebizitzaren jabe ez direla egiaztatzen duen agiria, jabetza erregistroak emana, gehienez laguntzen eskabidea aurkezten den eguna baino 15 egun lehenago.

6. 18 urtetik gorako bizikidetzeta edo familia unitateko kide guztiek zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

7. Zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak ez duela oro har diru-laguntzak jasotzeko inolako eragozpenik eta, zehazki, oinarri hauen onuradun berezien eskakizunak betetzen dituela. Adierazpen horretan honako alderdi hauek jaso beharko dira: alokatuko den etxebizitzan bizi diren edo biziko diren pertsonak, eta deialdiaren eskakizun bereziak betetzen dituztenak.

Gainera, etxebizitzaren titularkide izanez gero, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Herentziaren kasuan, herentziaren onarpena eta banaketa eskritura.

– Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura.

– Bi kasuetan, partaidetza salduz gero: transmisio eskritura.

– Aurreko bi urteetan jabetzako edozein ehunekoren, jabetza soilaren, azalera eskubidearen edo gozamen eskubidearen titular denak edo izan denak, eta, aldi berean, ohiko eta etengabeko etxebizitza eratu duenak eta bere etxebizitza judizialki bikotearen beste kideari ohiko etxebizitza gisa esleitu zaionean, banantze edo dibortzio edo izatezko bikoteen amaiera prozesuaren ondoren, epai judiziala eta hitzarmen arautzailea aurkeztu beharko du, zeinak egiaztatu behar baitu beste bikotekideari etxebizitzaren erabilera esleitu zaiola, edo Eusko Jaurlaritzak izatezko bikotearen amaiera egiaztatzeko emandako agiria.

– Genero indarkeriaren biktima izanez gero, egoera hori dagokion epai judizialaren edo biktimaren aldeko babes aginduaren bidez egiaztatu beharko da.

8. Familia unitateko pertsona guztien pentsio egiaztatzea, nomina edo diru sarreren justifikantea (organismo eskudunak emandakoa), dagokion urtekoa.

A) PFEZ aitortu behar duenak edo aitortu duenak, honako hauek ere egiaztatu beharko ditu:

– Eskabidea aurkezteko unean, igaro den azken zerga ekitaldiko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren inguruan aurkeztutako aitortpenaren fotokopia, orijinalarekin batera, erkaketa egiteko.

– Gainera, halakorik jasotzen bada, laguntzako prestazioen ziurtagiria.

B) PFEZ aitortu behar ez duenak eta aitortpena aurkeztu ez duenak honako hauek egiaztatu beharko ditu:

– Kasu guztietan:

– Ekitaldi horretan PFEZren aitortpena aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen foru ogasunaren egiaztatzea (eskabidea aurkezteko unean, igaro den azken zerga ekitaldia).

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra emandako lan bizitzako egiaztatzea.

– Gainera, kasua denean:

– Besteren konturako langileen kasuan, enpresak edo enplegatzaileak egindako agiria, ekitaldi horretan kontzeptu guztiengatik jasotako diru sarrera gordin guztiak agertzen dituenak.

– Pentsioa edo edozein beka, prestazio edo laguntzajasotzen dutenen kasuan (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), haien ziurtagiria, ekitaldi horretakoa.

C) Banandutako edo dibortziatutako eskatzaileen kasuan:

– Epai irmoaren fotokopia; non hitzartzen baita seme-alaben mantenurako pentsioa. Mantenuagatiko pentsioaren ordainagiriak aurkeztu behar dira.

– Hilean dauden hipoteka kargen zenbatekoaren ordainagiria.

9. Zinpeko adierazpena; bertan jaso behar da, hala badagokio, beste diru sarrera batzuk badaudela (zenbatekoa zehaztu behar da), eta/edo beste erakunde batzuei eginiko diru-laguntzen eskabideak.

10. Laguntza emateko eskakizunak kontuan hartuta egon daitekeen bestelako dokumentazioa.

Eskatzaileek berriaz baimendu beharko dituzte Zuiako Udaleko udal zerbitzuak organo eskudunei laguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak eskatzeko, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) eta 3/2018 Lege Organikoa) ezarritakoari jarraikiz.

7. artikulua. Hutsakzuzentzea

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez badaude edo konpondu daitekeen beste hutsik badute, eskatzaileari eskatuko zaio hutsazuzentzeko, gehienez hamar egun baliouduneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabideari uko egingo zaiola, eta hura izapiderik gabe artxibatuko dela.

Diru-laguntza ematea

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko errenta konpunterriaren ehuneko oinarri hartuta ezartzen da; gehienez eskabide bakoitzeko euro kopurua/hilabetea ezarriko da, gehienez 12 hileroko eperako, diru sarreraren arabera. Diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia zehazteko, errentamendu kontratuaren data hartuko da kontuan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezarritako tarte sistema batean ezartzen da, eskatzaileek egiaztatutako urteko diru sarreraren arabera, eta tarte bakoitzari ehuneko bat esleituko zaio.

Tarteen sistema.

| DIRU SARRERA HAZTATUAK | DIRU-LAGUNTZA |
|---------------------------------|-----------------------|
| 0,00 euro - 15.000,00 euro | errentaren ehuneko 60 |
| 15.000,01 euro - 19.000,00 euro | errentaren ehuneko 50 |
| 19.000,01 euro - 24.000,00 euro | errentaren ehuneko 40 |
| 24.000,01 euro - 30.000,00 euro | errentaren ehuneko 30 |

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairuaren prezioaren ehuneko 30en eta 60en artean ezartzen da, eta eskabide bakoitzeko, gehienez, 300,00 euro hilean.

Eskatzailea beste pertsona batzuekin bizi bada alokairuan, eskabide orrian jasotako zenbatekoaren arabera kalkulatu da diru-laguntzaren zenbatekoa eta behar bezala egiaztatu beharko da.

9. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Aitortutako diru-laguntza pertsonala da.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, bi ordainketatan:

– Lehen ordainketa deialdiaren ebazpenaren ondoren egingo da eta, gutxienez ere, indarreko urtearen lehen seihilekoarena izango da. Zenbatekoa ordura arte egiaztatutako alokairu gastuei dagokiena izango da.

– Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoari dagokiona, frogagiriak osorik aurkeztu ondoren egingo da, oinarri arautzaileen 10. artikuluan adierazten den bezala.

10. artikulua. Frogagiriak eta aurkezteko epea

Oro har, oinarri hauen helburu diren diru-laguntzak justifikatzeko, urteko deialdian ezartzen den epean frogagiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Alokairu kontratuari dagozkion hilerokoen ordainagiriak.
- b) Bananduen edo dibortziatuen kasuan, mantenuagatiko pentsioen eta dauden hipoteka kuoten hileko ordainagiriak.
- c) Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.
- d) Diruz lagundutako alokairua finantzatu duten bestelako diru sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatza. Zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira.
- e) Zinpeko aitortpena: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

Gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafikiko juridikoan balio sinesgarria duten bestelako dokumentu baliokideak edo administrazio eraginkortasuna dutenak.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzen onuradunek ordenantzaren 3. artikuluan oro har aurreikusitako estipulazioak bete beharko dituzte eta, zehazki:

1. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko dituzte eta ez dira Zuiako Udaleko eta administrazio batzordeetako zordun izango.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak, hala badagokio, egingo dituen egiaztapen jarduketak beteko dituzte, eta, horretarako, aurreko jarduketan ekitaldian eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkeztuko dute. Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko baino ez.

3. Laguntzen onuradunek, prozeduraren izapidetzean, eta laguntza eman denean, aitorten hori egitea ekarri zuten baldintzetan egon den edozein aldaketa eta laguntzarako eskubidea bat-batean galtzea ekar dezakeena jakinarazi beharko dute.

4. Laguntzen onuradunek etxebizitzaren aldaketa jakinarazi beharko dute, gehienez hamar eguneko epean, kontratu berria sinatzen denetik.

Betebehar horietako bat bete ezean, nahikoa izango da laguntza ezeztatzeko espedientea hasteko eta behar ez bezala kobratu diren kopuruak bueltatu behar izateko.

12. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Berariaz baztertzen dira laguntza horien eskatzaileetatik Bizigune programaren bidez etxebizitza alokatuta duten pertsonak.

13. artikulua. Finantzaketa

Alokairurako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1521.481.080 aurrekontu partidatik etorriko dira. Partida hori udalaren 2020. urteko aurrekontu orokorretik bideratutako 4.000,00 eurokoa da, eta Administrazio Batzarretarako lanen diru-laguntzen partidatik erabili gabeko kredituko 20.000,00 euro gehituko zaizkio.

Prozedura

14. artikulua. Balioespen irizpideak

Laguntzak emateko oinarritzko irizpideak oinarri hauen 4. eta 5. artikuluetan zehazten dira.

Baldintza eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntzak emango dira, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.

15. artikulua. Prozedura

a) Jarraibideak eta proposamena:

1. Zuiako Udaleko laguntzak kudeatzeko batzorde arduradunari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bideratzeko lanak egitea. Eskabideak dagokion batzordean aztertu eta ebaluatuko dira, eta, irizpen baten bidez, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

2. Behin-behineko jakinarazpena egingo zaie interesdunei, iragarki oholaren eta Zuiako Udalaren web orrialdearen bidez, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango da, alegazioak aurkezteko.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo da, eta, bertan, diru-laguntzaren onuradun izango diren eskatzaileen zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko dira. Diru-laguntza baldintzak bete dituzten guztien artean banatuko da; beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurrean aurkeztutako alegazioak onartzen badira, aldaketak egon daitezke behin betiko zerrendetako kopuruetan.

b) Ebazpena:

1. Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, alkatetzak prozedura ebatziko du, oinarriek ezartzen dutenarekin bat datorren ebazpen arrazoituaren bidez, eta egiaztatuta geratu beharko dira prozeduran ebazpenaren oinarriak.

2. Ebazpenak berariaz jaso beharko du gainerako eskabideen ezespena.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aipatutako epe horretan ebazpenik egon ezean, aurkeztutako eskabidea ezetsi egingo da.

4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainbidea jasoko dira.

5. Eskabideak bi fasetan ebatziko dira: lehenengoak, indarreko urtearen lehen seihilekoa hartuko du eta, hala badagokio, aurreko urteko azken hilerokoa gehituko zaio; eta bigarrenak, bigarren seihilekoa.

Diru-laguntzaren kontrola

16. artikulua

Zuiako Udalak onuradunei egoki irizten dituen dokumentuak aurkezteko eskatu ahalko die.

Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatze baimo ez.

Laguntzen onuradunek Zuiako Udalak beren fiskalizazio zereginetan duen eskumenaren arabera eskatzen dien informazio guztia emango diote.

Publizitatea

17. artikulua

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunak eta zenbatekoak aipatuko direla, Zuiako Udalaren web orrialdean eta bertako iragarki taulan argitaratuko dira.

Ez dira argitaratuko diru-laguntzak horien argitalpena, diru-laguntzaren helburua kontuan hartuta, pertsona fisikoen ohorearen errespetuaren eta babesaren, intimitate pertsonalaren eta familiarraren aurkakoa izan daitekeenean eta hala jasotzen denean diru-laguntza horren oinarri arautzaileetan.

Oinarriak interpretatzea

18. artikulua

Oinarri hauek interpretatzeko orduan zalantzarik egonez gero, Zuiako Udalaren batzorde eskudunak ebatziko du.

Baliabideak

19. artikulua. Baliabideak

Oinarri hauen aurka, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, deialdia onetsi duen organo eskudunaren aurrean, edo aurkaratu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien epaitegian. Epeak, bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatuko dira.

**UDAL DIRULAGUNTZA / SUBVENCIONES MUNICIPALES
ESKAERA - SOLICITUD**

**ESKAERA AURKEZTU DUENAREN DATUAK
DATOS DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD:**

Izen- abizenak/ Nombre y apellidos.

NAN/ DNI.

Zein izaera duzu erakunderako?/ ¿Con qué carácter actúas para la entidad?

**ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK
DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE**

Elkartea /Asociación.

I.F.K/ C.I.F. Helbidea/Dirección.....

Herrria/Localidad..... Posta kodea/ código postal.....

Elkartearen erregistro zenbakia eta data / Fecha y número registro de la asociación.....

Bankuko Kontu zenbakia / número cuenta bancaria (20 dígitos).....

Ordezkeri legalaren izen-abizenak / Nombre y apellidos de la persona representante legal.

Tfno. e-mail.....

Bazkide edo Kirol kideak / número de socios- socias o componentes.....

Udalerrian erroldaturik dauden bazkideen kopurua/ número de socias y socios que están empadronados en el Municipio.....

Eskatzaileak jarduera berarentzat beste diru-laguntza bat eskatu edo jaso du

La entidad ha solicitado o recibido otra(s) ayudas para la misma solicitud BAI/ Si EZ/ No

Eskatu den erakunde publiko edo pribatuaren izena/ Nombre de la entidad pública o privada en la que se solicitó.....

Eskutatuko edo jasotako kopurua/ cuantía solicitada o recibida.

Data / Fecha

Sinadura / Firma

Eskatera- orri honetako datu pertsonalak eskatzailearen onepenez jaso dira, tratamendu automatizatuaz izango dituzte ondorioz. Zuzeneko Udako Erakunde Autonomoetako informazioa sistemari sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketa-erako soilik erabiliko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (datu pertsonalak hobesteko) aurreikusitakoak gertatzen denetan izan ezik, orduan beste administrazio publikoetara edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango baitaizkizkie. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute udal Bolegoetan

Los datos personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al sistema de información del Ayuntamiento de Zúñiga y sus Organismos autónomos. El uso de dichos datos, se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de datos de carácter personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de las oficinas municipales

AITORPENA / DECLARACIÓN

Abizenak/Nombre y apellidos.

NAN/ DNI.....

Helbidea/Dirección.....

Herria/ Localidad. Posta kodea/ código postal

Elkartearen izenan/ En representación de la Asociación

..... Elkartearen IFZ/ CIF de la entidad.....

.....

Eskatzaileak aitortzen du:

- a. Ez dagoela kondenatua epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzera.
- b. Lehiaketa aitortzen ez dela eskatu, eta ez dutela kaudimengabe izendatu inongo prozeduratan, lehiaketan aitortua ez dela izan, eta kontu-hartze judizialen pean ez dagoela, eta Lehiaketa Legearen arabera ez dagoela desgaitu, lehiaketaren kalifikazio epaian ezarritako desgaitze epaia bukatu ez denean.
- c. Auziren batean errudun deklaratea dela eta, ez duela Administrazioarekin egindako edozein kontratuen ebazpen irmorik bultzatu.
- d. Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak, edo beste pertsona juridikoen legezko ordezkariak diren pertsonak ez daudela ondoren aipatzen diren legeek aurreikusitako suposamenduren batean: maiatzaren 11ko 12/1995 Legea, Nazioaren Gobernuakideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen Batarezintasunari buruzkoa; abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Batarezintasunari buruzkoa; ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskundeetarako Lege Orokorra, hautatutako karguak arautzen dituen, bertan adierazten diren terminoetan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoa.
- e. Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharraren edo Seguritate Sozialarekikoetan eguneratua dagoela, araudiak ezartzen duen forman.
- f. Ez duela egoitza fiskala araudiak paradisu fiskal gisa ezagutzen den lurralde edo herrian.
- g. Diru-laguntza ordainketak direla eta betebeharraren ordainketetan eguneratua dagoela, araudiak ezartzen dituen terminoetan.
- h. Ebazpen irmo batekin diru-laguntzak jasotzeko eskubidea kentzeko zigorrik ez izatea, Lege honen arabera edo Zerga Lege Orokorraren arabera.
- i. Ez dagoela, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoren, Elkarte Eskubidea Arautzen duenaren, 4. artikulua 5 eta 6 ataletan, aurreikusitako debeku arrazoien batean sartua.
- j. Inskripzioaren administrazio prozedura eten egin zaion elkarte ez izatea, elkartearen eraketan ez-zilegatasun penalaren zentzuko zantzuak atzematen direlako 1/2002 Lege Organikoren 30.4 artikulua aplikatuz.

La persona solicitante declara:

- a. No haber sido condenada mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.
- b. No haber solicitado la declaración de concurso, no haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no hallarse declarada en concurso, no estar sujeta a intervención judicial o haber sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
- c. No haber dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
- d. No estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellas que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 12/1995, de 11 de mayo, de Incompatibilidades de los Miembros del Gobierno de la Nación y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.
- e. Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.
- f. No tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.
- g. Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.
- h. No haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según esta Ley o la Ley General Tributaria.
- i. No estar incurso en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, Reguladora del Derecho de Asociación.
- j. No ser una asociación respecto de la que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002.

.....(e)n, Sinadura/ Firma

Eskatzailearen honetako datu pertsonalak eskatzailearen onepenez jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta ondorioz, Zuziako udal eta Erakunde Autonomoetako informazio sisteman sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketaarako soilik erabiliko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteko) aurreikusitako gertatzen denean izan ezik, orduan beste administrazio publikoetara edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango baitaizkie. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezetzatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute udal bulegoetan. Los datos personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo el consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al sistema de información del ayuntamiento de Zuia y sus Organismos Autónomos. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de las oficinas municipales.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA

| | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|--|
| FORMULARIO - 2020 - FORMULARIOA | | |
| KULTURA, EUSKARA BULTZATZEKO ETA GIZARTE EKINTZAK eta/ edo JARDUERAK PROGRAMAS CULTURALES, PROMOCIÓN EUSKERA Y/O SOCIALES | | |
| <i>Ilundutako guneak UTZI idatzi gabe / Los espacios sombreados NO rellenar</i> | | |
| Egitaraua / Programa | | |
| ☞ Antolatuko diren ekintzak/ Actividades a realizar..... | | |
| | | |
| | | |
| ☞ Data/Fechas..... | | |
| ☞ Tokia/ Lugar..... | | |
| ☞ Helburuak/ Objetivos. | | |
| | | |
| Jardueraren proiektua beste formato batean aurkez dezakezu / Puedes presentar el proyecto en otro formato | | |
| PARTEHARTZAILEEN KOPURUA / NÚMERO DE PARTICIPANTES | | |
| Partehartzaileen kopurua adierazi/ Señalar número de participantes | | |
| IRAUPENA / DURACION | | |
| Egunak edo jardunaldiak adierazi / Señalar número de días o jornadas | | |
| AUTOFINANTZAKETA / AUTOFINANCIACIÓN | | |
| Kuotak/ cuota | euros | |
| Diru-laguntzak/ subvenciones | euros | |
| | euros | |
| | euros | |
| | euros | |
| Beste batzuk/ Otros | euros | |
| | euros | |
| Diru sarrerak / Total de ingresos | | |

| GASTUEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE GASTOS Detallar todos los gastos / Zehaztu gastu guztiak | | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------|
| KONTZEPTUAK / CONCEPTOS | Zenbatekoa Importe | Ehunekoa Tanto por ciento | Konputagarria Computable |
| A) | | | |
| B) | | | |
| C) | | | |
| D) | | | |
| E) | | | |
| F) | | | |
| G) | | | |
| H) | | | |
| I) | | | |
| J) | | | |
| K) | | | |
| L) | | | |
| M) | | | |
| EUSKERA | | | |
| Ekintza euskara ikasteko edo bultzatzeko da Actividades encaminadas al aprendizaje / promoción del euskera | Bai/ Si <input type="checkbox"/> Ez/ No <input type="checkbox"/> | | |
| PUNTOS TOTALES / GUZTIRA | | | |

AYUNTAMIENTO DE ZUIA

FORMULARIO - 2020 - FORMULARIOA

ZUIAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES DE ALUMNOS Y ALUMNAS DE ZUIA☞ *Ilundutako guneak UTZI idatzi gabe / Los espacios sombreados NO rellenar***Egitaraua / Programa**☞ Antolatuko diren ekintzak/ Actividades a realizar.....
.....
.....
.....

☞ Data/Fechas.....

☞ Tokia/ Lugar.....

☞ Helburuak/ Objetivos.....
.....

Jardueraren proiektua beste formato batean aurkez dezakezu / Puedes presentar el proyecto en otro formato

PARTEHARTZAILEEN KOPURUA / NÚMERO DE PARTICIPANTESPartehartzaileen kopurua adierazi/
Señalar número de participantes

.....

IRAUPENA / DURACIONEgunak edo jardunaldiak adierazi /
Señalar número de días o jornadas

.....

AUTOFINANTZAKETA / AUTOFINANCIACIÓN

Kuotak/ cuota

euros

Diru-laguntzak/ subvenciones

euros

euros

euros

Beste batzuk/ Otros

euros

Diru sarrerak / Total de ingresos

| GASTUEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE GASTOS Detallar todos los gastos / Zehaztu gastu guztiak | | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------|
| KONTZEPTUAK / CONCEPTOS | Zenbatekoa Importe | Ehunekoa Tanto por ciento | Konputagarria Computable |
| A) | | | |
| B) | | | |
| C) | | | |
| D) | | | |
| E) | | | |
| F) | | | |
| G) | | | |
| H) | | | |
| I) | | | |
| J) | | | |
| K) | | | |
| L) | | | |
| M) | | | |
| EUSKERA | | | |
| Ekintza euskara ikasteko edo bultzatzeko da Actividades encaminadas al aprendizaje / promoción del euskera | Bai/ Si <input type="checkbox"/> Ez/ No <input type="checkbox"/> | | |
| PUNTOS TOTALES / GUZTIRA | | | |